

152 Zenbakia - Data: 18/12/2000

III. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bortzirietako hiri-hondakin solidoak Kudeatzeko Mankomunitatea

Behin betiko onespena hiri-hondakin solidoen kudeaketa arautzen duen ordenantzaren aldaketari

Mankomunitate honen Batzar Nagusiak, 2000ko urriaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen:

Hiri-hondakinen kudeaketa arautzen duen ordenantzaren aldaketa hasiera batez onartzea. Aldatutako 31 eta 35. artikulua honela geratuko dira:

IV. KAPITULUA

Hondakinen bilketa sailkatua

31. artikulua. Bai Hondakinei buruzko 10/1998 Legeak, bai Ontzi eta Ontzietako Hondakinei buruzko 11/1997 Legeak, berrerabilpena, birtziklajea eta hondakinei etekinak ateratzea dituzte helburu, horiek denak ingurugiroa eta jendearen osasuna zaintzeko. Halaber, beste helburu batzuk dira hondakinak aprobetxatzea eta baliabide energetikoen eta lehengaien optimizazioa.

35. artikulua. Bilketa sailkatua.

1. 31. artikuluan aurreikusitakoa bete dadin, Bortzirietako Mankomunitateak hasieratik berezian sailkako bilketa egiteko sistema ezarri du, erabiltzaile guztiak behartzen dituena. Hona hemen:

-Zabor arruntaren edukiontzia (berdea): gai organikoak, berogailuetako errautsa, eta gainontzeko edukiontzietan sartu ezin diren gaiak.

-Paperaren edukiontzia (urdina): kartoi eta paper garbiak horretarako jarritako edukiontzi urdinera botako dira.

-Beiraren edukiontzia ("igloo" berdea): beirazko ontziak eta horrelakoak botako dira edukiontzi horietan.

-Enbaseen edukiontzia (laranja): mota guztietako enbaseak, tetrabrikak.

-Pilen edukiontzia (horia): pilak edukiontzi horietan botako dira.

2. Debekaturik dago etxeko hondakin arriskutsuak, hala nola olioak, fluoreszenteak, margoak, disolbatzaileak, bateriak, botikak eta arautegiaren arabera arriskutsuak diren guztiak, aipatutako edukiontzietan botatzea.

3. Bortziritako Mankomunitateak zehapena ezarriko die, bere jokabidea dela medio, edukiontziak jaso edo bere lekuan paratzeko zerbitzua eragozten dutenei, baita aitzineko artikuluetan ezarritako bete-beharrak betetzen ez dutenei ere.

Erabaki hori jendaurrean paratu zen eta 2000ko urriaren 30ean, 127 zenbakiko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen.

Erreklamazio, enura eta ohartarazpenik aurkeztu ez denez, akordio hau behin betikoa bilakatu da bertan ezarritakoaren arabera.

Aldaketek 2001. urteko urtarrilaren 1ean hartuko dute indarra.

Etxalarren, bi milako urriaren hogeita hamarrean. Presidenteak, sinadura ulertezina